



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko maiatzaren 23an

42 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—2001-2003 toki azpiegituren hiru urteetarako planaren Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetako fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordean izapidatzea (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko galdera, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

—Iparreko autobioiako lan osagarriak zertan diren jakiteko galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina (12. or.).

**G SAILA:****Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazainak aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko deialdia. Akats zuzenketa (13. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Onartuen behin betiko zerrenda (13. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko hiru lanpostu –horietatik bi ofizialki onetsitako euskara-tituluarekin– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartuen behin betiko zerrenda (14. or.).

**I SAILA:****Parlamentuko Jarduera:**

- 2000ko apirilean egindako bilerak (15. or.).
- 2000ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Nagusian sartu diren agirien zerrenda (17. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2001-2003 toki azpiegituren hiru urteetarako planaren Foru Lege proiektua**

### *EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** 2001-2003 toki azpiegituren hiru urteetarako planaren Foru Lege proiektuari emen-

dakinak aurkezteko epea **2000ko maiatzaren 26ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena**

#### ZIOEN AZALPENA

Gure Komunitateko bide-azpiegituren garapenarekin eta bereziki bertatik igarotzen diren errepide handiekin zerikusia duten aferek eragin handia dute gure Komunitatearen ekonomia- eta gizarte-bizitzaren etorkizunari begira; izan ere, horrek baldintzatu egiten ditu garrantzi handiko hainbat auzi, hala nola Nafarroa osatzen duten eskualdeen arteko oreka eta Europa zein Espainiako gainontzeko lurraldeekin komunikatzeko eta garatzeko aukerak.

Aferak gizartean duen garrantziaren eraginez, kezka handia sortu da azkenaldi honetan gizartean, gure Komunitateko autopistetan bidesaria ordaindu behar izateak zenbait eskualdetan komunikazioen etorkizunerako dituen ondorio negatiboen eta autopista horiek behar bezala ez erabiltzeak eta ustiatzeak albotik doazen errepideei dakartzkien arazoengatik.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak batzordeetan lan egiteari ekin zion, gure Komunitateko autopistetan gaur egun bidesaria ordaindu beharra dagoela-eta aldaketarik egin ote daitekeen aztertzearen. Lan horien lehen fasea bukatuta, eta Nafarroako autopistetako bidesaria kentzea dela-eta gizartean arrazabalduta dagoen kezka –Nafarroako Parlamentuari aldiro adierazi zaiona– geure eginez, foru lege berri bat onesteko proposatzen dugu. Indarra duen 11/1986 Foru Legearen osagarri izanen da foru lege berri hori, eta arautu eginen du Nafarroako Foru Komunitateko errepideen erabilera eta ustiapena. Halaber, foru lege horrek behartu eginen du Gobernuak eman beharreko pausoak eman ditzan A-15 autopistaren kapital osoa eta haren titulartasuna eskuratu ditzan eta A-68 autopistak Nafarroan barrena egiten duen bideunearen titulartasuna negoziatu dezan.

Azken buruan, Nafarroako errepideen erabilera eta ustiapena zehatz-mehatz arautzeaz gain, A-15aren doakotasunaren aldeko herritarren aldarria egi bihurtu dadila bilatzen du lege proposamen honek.

#### **1. artikulua.- Xedea**

Foru lege honek xede du Nafarroako Foru Komunitatea titularraren errepideen erabilera eta ustiapena arautzea.

#### **2. artikulua.- Titulartasuna**

1.- Indarra duen legeriarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateetik igarotzen diren errepideen titulartasuna Nafarroako Foru Komunitateari ala toki entitateei dagokie, kasuan-kasuan.

2.- Toki entitateenak dira errepide baten zehar-bideak zein hiri-barruko bideuneak eta hirigintza-legeriarekin bat etorri toki entitateek eta norbanakoek egindako errepideak.

3.- Ondokoek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko errepide-sarea: interes orokorreko sarean sartu eta Komunitatea titularra den errepideak, Foru Komunitateko intereseko sarea, eskualde sarea eta toki sarea.

**3. artikulua.-** Foru Komunitateko errepide-sarea erabiltzeko eta ustiatzeko araubidea.

1.- Nafarroako Foru Komunitateko errepide-sareko errepideak Foru Komunitateak ustiatzen ditu.

2.- Foru Komunitateko errepide-sareko errepideen erabilera eta ustiapena Foru Komunitateko Administrazioak bermatzen duen zerbitzu publikoa da. Honakoa da zerbitzu horren xedea da: Nafarroako lurraldea egituratzea, herriak zein Nafarroa bera ondoko erkidegoekin harremanetan jarri eta hobeki lotzea eta erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna.

3.- Nafarroako Foru Komunitateak zuzenean ustiatuko ditu bere kargura dauden errepideak, eta erabiltzaileek doan erabili ahalko dituzte.

4.- Baldin eta Nafarroako Foru Komunitateak, Estatuko Administrazio Orokorrak, beste autonomia erkidego batzuek edo Europako Batasuneko estatuetako erregioetako ente zein administrazioek itun edo hitzarmenik sinatzen badute Nafarroako lurraldetik ez ezik beste autonomia erkidegoetako zein Europako Batasuneko erregioetako lurraldetik ere igarotzen diren errepide handiak –autopistak nahiz autobideak– egin, finantzatu eta ustiatzeko, haiek ondoko bideren bat baliatu ahalko dute errepide handi horiek ustiatzeko: partzuergoak, sozietate publiko zein pribatuak edo norbanakoak, gure legerian zerbitzu publiko bat kudeatzeko aurreikusitako den edozein formula erabilita.

5.- Hirugarren idatz-zatian emandako arau orokorrari eginiko salbuespenak, aurreko idatz-zatian jasotzen baitira, halakotzat jo beharko ditu alde zuzenetik Nafarroako Parlamentuak betiere. Horretarako, lege-mailako arau bat onetsi beharko du.

**Lehen xedapen iragankorra:** A-15 autopistaren emakida bertan behera uztea.

A-15 autopistako bidesariak erabat kentzearen, Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onesten denetik hilabeteko epean, izan beharreko negoziazioak izanen ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin. Helburua da Nafarroako Foru Komunitateak A-15 autopistaren enpresa hartzailean estatua titularra den kapital sozialaren erosketa formalizatzea; horrela, kapital osoaren titulartasuna Foru Komunitatearena denean, bi aldeak ados jarrita utziko da bertan behera emakida.

Sei hilabeteren buruan akordiorik lortu ez bada, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko VIII. tituluko III. kapituluko 3. atalean xedatutakoarekin bat, administrazio espedienteak abiaraziko du, A-15 autopistaren zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua ebazteko.

Edozein modutan ere, Nafarroako Parlamentuak behar adina diru jarriko du aurrekontuan ares-tiko lerroaldetan xedatua betetzearren.

**Bigarren xedapen iragankorra:** A-68 autopista Nafarroaren esku uztea

Foru lege hau onesten denetik hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioarekin negoziatzen hasiko da, Estatuak Nafarroaren esku utz dezan A-68 autopistaren Nafarroako bideunearen titulartasuna. Ondoren, Nafarroako bideunea zuzenean ustiatzea posible den jakiteko egin beharreko azterlanak egin eta gero, bidesariak kentzeko egin beharreko jarduketak eginen dira.

### **Azken xedapenak**

1.- Indarrak gabe gelditu dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

2.- Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak, 1999ko ezbehar-tasari buruz aurkeztutako txostenean, berriro ere aipatzen du ez dela nahikoa ezbehar-tasa arindu, jaitsiarazi edo desagertarazteko Administrazioa egiten ari den ahalegina. Txostenean emaitza etsigarriak azaltzen dira: 30 hildako eta 1998an baino 2.413 istripu gehiago. Sektorez sektore, eraikuntza sektorean izan zen istripu gehien; izan ere, eraikuntzan aritutako 14.488 langiletatik 2.907k izan zuten istripuren bat 1999an zehar, 38 istripu larri gertatu zen, eta 6 pertsona hil. Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Legea eta Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru

Legea aplikatzeak, ez du, antza denez, arazoa konpondu.

Egoera horrek agerian uzten duenez, ez da hazkunde ekonomikoa eta laneko segurtasun arau gutxienekoak ezkontzen jakin.

Datuek okerrera egin eta etorkizun iluna marrazten digute, zeren aurtengo lehen hiruhilabetean, 1999ko lehen hiruhilabetearekin konparatuta, ezbehar-tasa % 20 hazi baita.

Horren guztiaren ondorioz, eztabaidari ekin behar diogu Parlamentuan, zergatiak argitu eta arazoari irtenbideak bilatzearen. Argi dago giza-eta gauza-baliabide gehiago behar direla Lan Ikuskaritzan, laneko arriskuen alorrari gehiago erreparatzen zaiola bermatuko bada.

Garatu eta kontrolatu egin beharko da lege-esparru zorrotzago bat planteatutako helburuetan aurrerapausoak ematearren.

Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Legeak kreditazio bat exijitzen die enpresei Foru Administrazioarekin kontratuak egiteko. Kreditazio horren bidez, egiaztatu egin behar dute Gizarte Segurantzarekiko tributu-betebehar guztiak bete dituztela, bai eta laneko arriskuei aurrea hartzeari, lan osasunari eta segurtasunari buruzko betebeharrak ere, baina, paradoxikoa bada ere, administrazioak ez du hori betetzen den egiaztatzeko baliabiderik.

Argi dago hori eskatzea ez dela nahikoa, eta, nahiz eta ezbeharrik gehienak Administrazio Publikoekin sinatutako kontratuak ez besteetan gertatzen diren, haietako exijentzia maila areagotzea erreferentzia bihur liteke gainontzeko sektoreentzat.

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen ustez, drogak hartzeak –alkohola, tabakoa eta bestelakoak– zerikusia izan dezake lanean gertatzen diren ezbeharrekin. Horrenbestez, gure ustez garrantzitsua da Nafar-

roako Gobernuko arduradunek harreman estua izatea enpresako medikuekin, haiei euren helburuen berri eman diezaieten. Hitzaldien, liburuxken zein publizitate-afixen bitartez, drogak hartzeari buruzko informazio lanak jaso beharko ditu planak.

Azterketa honetatik atera daitekeen ondorioa da beharrezkoa dela enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat egitea. Plan horrek hainbat helburu izanen luke, esate baterako enpresak konturatzea beharrezkoa dela drogamenpekotasunari aurrea hartzeko planak egitea; horrela, drogamenpekotasuna antzeman, eta horri buruzko informazio lanaren ondorioz, langilearen bizi kalitatea hobetu eta laneko ezbehar-tasa jaitisiko litzateke.

Ukitutako enpresek zaindu egin beharko dute ea drogak –alkohola eta bestelakoak– egunero hartzen diren, eta hala baldin bada, esku hartu beharko dute.

Seguru gaude ezen halako neurriek langileen bizi kalitatea hobetuko dutela eta Nafarroako enpresetako ezbehar-tasa jaitziaraziko dutela.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu Nafarroako Parlamentu Osoko Bilkuran onesteko:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Nafarroako enpresetan drogamenpekotasunari aurrea hartzeko plan bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan; plan horrek helburu izanen du drogak hartzeak dakartzan arazoez, laneko ezbeharretan izan dezakeen eraginaz eta alkohola eta bestelakoak hartzeagatik langileek izaten dituzten osasun arazoez ohartaraztea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 8an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatze-ko kanpaina bat abian jar dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da botika generikoak ezagutzeko eta horien gainean informatzeko eta sentsibilizatze-ko kanpaina bat abian jar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendekin aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko

192. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Foru Komunitateko Ogasunak 13.607 milioiko farmazi kostua izan zuen 1999ko aurrekontu-ekitaldian. Zenbateko horrek gora egiten du urterotertero; izan ere, 1998tik 1999ra % 11,5 hazi zen farmazi faktura, orduan 12.207 milioikoa izan baitzen foru ogasunarentzako kostua. Orobat, oroitaz behar da ezen azken hamarkada honetako farmazi faktura 8.979 milioi igo dela, ia-ia % 200, zeren 1989ko faktura 4.628 milioikoa izan baitzen.

Gobernu baten jarduketan, lehentasuna izan behar dute gastu publikoaren kontrolak eta hura ahalik eta ondoen erabiltzeak. Zalantzarik gabe, eskaintzen den osasun zerbitzuaren kalitateari loturik doa Nafarroako farmazi gastuaren igoera ikusgarria, baina kalitate hori gastua areago kontrolatuz eskaini behar da, gastu publikoan ekonomia eta eragingarritasun printzipioak bete daitez.

Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak orain dela gutxi adierazi du “farmazi gastua jaitea

obsesio bat bainoago premia bat dela". Baiezta-pen horren arabera, komenigarria da gastu hori jaisten laguntzeko kanpainak egitea; gure ustez, ordea, Gobernuak planteatutako batzuek, farmazi sektoreko banakako itunek adibidez, arazoa konpondu baino larriago eginen dute, eta sektorean alferrikako alarma sortuko.

Farmazi kostua ezin da inolaz ere kalitatearen kaltetan jaitsi. Badira moduak, orain arte gutxi jorratu direnak, farmazi kostua jaitsi eta osasun laguntzaren kalitateari eusteko. Zerbitzuaren kalitateari kalterik egin gabe arestian aipatutako helburua lortzearren Administrazioak ez duela jarduketara ausart eta garbirik egiten, eta egin beharko lukeela, iruditzen zaigu.

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldearen ustez, botikak behar bezala erabiltzeko estrategia bat prestatu behar da, eta halakorik baldin badago, berriro ere aztertu; izan ere, Nafarroako osasun zerbitzuko profesionalentzat, interesengatik jarduten ez duen ahots eta ikuspuntu bakarra Administrazioarena berarena izan daiteke, kalitate bereko botikak merkeago eskaintzearren. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak medikuentzako informazio kanpaina bat prestatu behar du, horiek informazio aseptikoago, orekatuago eta osatuagoa izan dezaten; horrela, orain arte baino hobeki errezetatuko dituzte botikak, eta ahal dela, kostu-eragingarritasun printzipioari lotuko.

Botika generikoak eta "markadun" botikak eragin bera dute gaixoarengan, baina Administrazioarentzako kostua askoz txikiagoa da. Botika generikoen kasuan, merkataritza-markak patentea galdu du eta, hortaz, merkeago saltzen ahal dira. Gaixoarengan duten eragina eta harentzako abantailak osagai berekin egindako beste edozein botikarenak dira.

Nafarroako Foru Administrazioak farmazi sektoreko produktu berriei buruzko informazio sistema bat du. Merkaturan daudenekin konparatuta

botika berri horiek dituzten abantailak fitxa batzuen bidez argitzea izanen litzateke kontua.

Gure ustez, neurri horiek ez dira nahiko baldin eta kostua ahalik eta gehien murriztuz kalitatezko osasun zerbitzu bat eskaini nahi bada. Administrazioaren zeregina da aztertzea ea merkaturan azaltzen diren botika berriek berrikuntzarik dakarten ala ez eta kostuari eta eragingarritasunari begira horiek merkaturan jartzea merezi duen ala ez.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du botika generikoak eza-gutzeko eta horien gainean informatzeko eta sensibilizatzeko kanpaina bat abian jar dezan, Nafarroako osasun arloko profesionalen zuzendua, botika generikoak erabil ditzaten. Kanpaina horren helburu nagusia izanen da profesional horiek informazio aseptikoago, orekatuago eta osatuagoa izan dezaten; horrela, orain arte baino hobeki errezetatuko dituzte botikak, eta ahal dela, kostu-eragingarritasun printzipioari lotuko. Ondokoak ere izanen ditu helburu: Nafarroako osasun zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren beste esparru batzuetara ere zuzentzeko. Kanpaina horrek merkatura ateratzen diren botika berriak nabarmendu beharko ditu bereziki.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun-profesionalentzako, erabiltzaileentzako eta gaixoentzako programa bat abiatu dezan, kalitate bera eta prezio baxuagoa duten aldetik botika generikoak saldu eta erabiltzeko ohitura sustatzearren.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 8an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetako fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAN IZAPIDATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Bozeramailen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Gobernua ikastetxeetako fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan premiatzen duen mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta Osoko Bilkuran izapidetu behar zena, Hezkuntza

eta Kultura Batzordean izapidatzeko agintzea. Mozio hori 2000ko martxoaren 27ko 26 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko galdera**

*JOSE M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko egindako galde-raren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galde-ra egin du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun die-zaion:

1991n hasi zen Estatuan planteatzen lur kutsa-tuen auzia, orduan bertan 243 tokik sortzen baitzi-tuzten halako arazoak.

1994an planteatu zuen Herrilan Ministerioak Lur kutsatuak leheneratzeko plan nazional bat.

Eta orduan hasi ziren gure komunitatean auzi horren inguruko jarduketa zenbait.

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak gure komunitateko lur kutsatuen inbentario berekirik, ala, Estatuak laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera aldean eginikoa erabiltzen du?

2.- Zer baliabide ditu halako lurrak aurkitu eta katalogatzeko?

3.- Zure Departamentuaren ustez, ez al dago katalogatuz gain halako lur gehiagorik Nafarro-an?

4.- Negoziatzen ari al zarete lurrak kutsatu dituztenekin irtenbideren bat bilatzearen? zertan da negoziazioa?

5.- Zer jarduketa-egutegi duzue aurreikusita inbentariaturik dauden lurren kasurako?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernán-dez de Barrena

---

## Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Biofruit enpresak Buñuelen elikagai izoztuak –jogurtak zein zukuak egiteko eta frutez eginak– ekoizteko lantegi bat irekitzeko asmoa zuen. Enpresa horrek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen Buñuelgo Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin; hartan, 400 milioi inbertitu eta 40 lanpostu sortzeko konpromisoa hartu zuen.

Enpresa-ekimen hori, baina, ez da azkenean gauzatu ahal izanzen, zeren ordainketak eteteko eskaera bat aurkeztu baita lehen auzialdiko epaitegian.

Jarduera berria sortzeagatik laguntza eta pizgarri publikoak ematea jasotzen zuen lankidetzaren hitzarmenak. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer konpromiso hartu du Nafarroako Gobernuak ekimen horren sustatzaileekin? ordaindu al da inolako zenbatekorik konpromisohorien kargura? Halakorik egin bada, ordainduta-ko zenbatekoen zerrenda, bai eta horiek egin ziren datena ere, jaso nahi dugu. Buñuelgo Udalaren, Nafarroako Gobernuaren –Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua– eta sustatzaileen artean sinatutako hitzarmena eskuratu nahi dugu.

2.- Enpresa-ekimen hori gauzatu ez izanak dakarren porrotaren aurrean, Buñuelgo alkateak helburutzat jo du industrialdean kokatuko diren beste enpresa-ekimen batzuk bilatzea, hori baita herrian dagoen kezketariko bat. Ba al du Nafarroako Gobernuak esku artean enpresa-ekimenik Biofruiten utzitako hutsunea betetzeko?

3.- Urmaela eraikitzeko egin beharreko inbertsioak egiteko konpromisoa hartu zuen Nafarroako Gobernuak, eta NILSAko teknikariak eskaini zizkion Biofruit enpresari, hondakinak tratatzeko dauden aukerak aztertzearen. Eman al zegoen urratsik NILSA sozietate publikoarekin hondakinen auziari irtenbide bat ematearren? Irtenbideak aztertu baldin baziren, zertan egin zen aurrera? zenbatekoa da NILSAk enpresa-ekimen hori dela eta egindako lanen kostu estimatua?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## Iparreko autobiako lan osagarriak zertan diren jakiteko galdera

### *EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak iparreko autobiako lan osagarriak zertan diren jakiteko galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Iparreko Autobiako lanek Lekunberri, Azpirotz, Gorriti, Areso eta Leitzako udal mugapeetako

zubiak, itxiturak, finketako sarbideak eta abar ukitu dituzte.

Nafarroako Gobernuaren ardura da sortu diren arazoei irtenbide bat emateko jarduketak egitea, berak prestatu baitzuen Iparreko Autobiako lan osagarrien proiektua, non, proiektuan zeudenez gain, aparte kontratatzeko 40 jarduketatik gora bil-tzen baitziren.

Gure talde parlamentarioak jakin nahi du:

- Iparreko autobiako lan osagarriak zertan diren, alegia,
- zeintzuk bukatu diren
- zeintzuk egiten ari diren
- noiz diren hastekoak oraindik orain egin gabe daudenak

Zergatik atzeratu dira lan osagarri horiek?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 11n

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazainak aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko deialdia**

### **AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazainak aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko deialdia 2000ko maiatzaren 3ko 37 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Deialdia argitaratzean egindako akats bat zuzendu nahi da.

Beraz, Lehendakaritza honek ERABAKI DU:

1. 5.2 eta 7.2.1) oinarrietan, hurrenez hurren, markaturik zegoen epaimahaia eratzeko data eta oposizioaldiaren hasiera maiatzean izanen zela. Hori aldatzea eta bi agindu hauek 2000ko ekainean izanen direla iragartzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa**

### **Onartuen behin betiko zerrenda**

Deialdi hau 2000ko apirilaren 10eko 44 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Lehendakari honek, aipatu deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, ERABAKI DU:

1.- Onartuen behin betiko zerrenda onestea.  
Hona

### **Onartuak:**

Fadrique Garde, M<sup>a</sup> Isabel  
Pascal Roncal, José Vicente  
Sanz de Galdeano Bomba, José M<sup>a</sup>  
Urtasun Anzano, Eduardo

2.- Behin betiko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko hiru lanpostu –horietatik bi ofizialki onetsitako euskara-tituluarekin– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa**

### **Onartuen behin betiko zerrenda**

Lehendakaritzak, aipatu deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, ERABAKI DU:

**1.-** Onartuen behin betiko zerrenda onestea.  
Hona

#### **Onartuak:**

##### *Gaztelaniazko txanda:*

Arana Ripa, Africa  
Armendariz Senberoiz, Belen  
Echarri Carasusán, M<sup>a</sup> Jesús  
Elizalde Del Rincón, Teresa  
García Caballero, Asunción  
Goñi Beloqui, Ana M<sup>a</sup>  
Jaurrieta Elcano, Teodoro  
Laseca Escuer, José Ramón

Migueliz Garcés, Iñaki  
Pérez Valencia, M<sup>a</sup> Mercedes  
Rípodas Trigo, Blanca  
Ruiz Ciriza, M<sup>a</sup> Jesús  
Zudaire Larrión, Begoña

##### *Euskarazko txanda:*

Armendariz Senberoiz, Belen  
Gamboa Zabalo, María Jesús  
Migueliz Garcés, Iñaki

**2.-** Behin betiko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2000ko apirilean egindako bilerak

### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 10, 11, 13 eta 17an.

#### OSOKO BILKURA

11n:

– 1. Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen XIII. tituluko I. kapituluak aldatzeko proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da N-240 Iruña-Jaca-Huesca errepide osoa autobia bihurtzeko dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da alargun-pentsioak berrikus ditzan.

– José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etxebizitzak zaharberritzeko bulegoak jar ditzan oraindik horrelakorik ez dagoen lekuetan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Laguntza soziosanitarioari buruzko plana egiterakoan, drogazaleei ere laguntza soziosanitaria ematea kontuan har dadin.

– José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da foru lege proiektu bat egin dezan toki ogasunen partaidetza fondoari buruz.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da aintzat har dezan erakunde politiko eta sozialek Armada profesionalizatzeko prozesua azkartzeko egin duten eskaria.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eskualdeko hirigintza arauak prestatzeko ditzan.

#### FORU ARAUBIDE BATZORDEA

4an:

– Joxe Fernando Barrena Arza foru parlamentariak idazkari kargua utzi edo hortik kentzeko proposamena.

– Idazkaria hautatzea, behar izanez gero.

– Lehendakariordea hautatzea.

– Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

#### NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

6an:

– Ondoko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Erregionalizazio Planaren aurkako errekurtsoa aurkeztu duten nekazariari eta nekazaritza-kooperatibei babes eman dizaien".

18an:

– Lan bilera. Bertan, Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Institutuko kudeatzaileak Evena, Alvo

eta Laboratorio del Ebro zentroei buruz institutu horrek dituen aurreikuspenen eta lan-ildoen berri emanen du.

### **OSASUN BATZORDEA**

7an:

– Lan bilera. Bertan, Osasuna Denontzako Elkarteak etorkinak osasun sisteman sartzeko egiten dituen proposamenen berri emanen du.

12an:

– Lan bilera. Bertan, Asociación de Auxiliares y Empleados de Farmacia, S.A eta Nafarko elkarreetako ordezkariak eta Osasun kontseilaria bera etorriko dira Farmazi laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari buruz duten iritzia ematera.

13an:

– Ondoko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan.

– Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea. Foru Lege proposamenak helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak.

### **GAZTEENTZAKO POLITIKA OROKORREI BURUZKO IKERLAN BAT EGITEKO BATZORDE BEREZIA**

7an:

– Batzordea eratzea.

– Lehendakaria hautatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako lan-plana eztabaidatu eta bozkatzea.

### **HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

12an:

– Kultura Batzordeko kideak bisitan joanen dira Nafarroako Unibertsitate Publikora.

### **LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

12an:

– Lan bilera. Bertan Ingurugiro Zerbitzuko landazainak eta Bardeetako Komunitateko Presidentek Komunitate horri ezarritako espediente zigortzailearen berri emanen dute.

19an:

– Lan bilera. Bertan, 621/1999 Foru Dekretua onetsi ondok sortu den egoeraren berri emanen dute babes ofizialeko etxebizitzak deskalifikatzeko epea luzatu izanak kaltetutako enplateaformako ordezkariak.

### **INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA**

13an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Erriberriko Eurovestir S.A. enpresaren egungo egoeraren eta etorkizuneko konponbideen berri eman dezan.

### **GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**

14an:

– Ondoko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldira ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda dezan.

### **EUROPAKO GAIEN BATZORDEA**

18an:

– Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, otsailaren 16an eta 17an egin zen Erregioetako Batzordearen osoko bilkuraren edukiaren berri eman dezan.

### **NAZIOARTEKO ELKARTASUN ETA ELKARBIZITZA GAIETARAKO BATZORDEA**

19an:

– Lan bilera. Bertan, Kanpo zorra ezabatzearen aldeko herritarren sareko ordezkariak iragan martxoaren 12an egindako herri-kontsultako emaitzen eta euren proposamenen edukiaren berri emanen dute.



## 2000ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Nagusian sartu diren agirien zerrenda

### 3an:

– Idazkia, ACS-ACR Enpresen Aldi Baterako Batasunarena. Horrekin batera, obrako zuzendaritza teknikoaren txostena, 4. zenbakia duen obra-ziurtagiriari erantsitako analisi gisa.

– Idazkia, Mikel Iriarte Cilveti jaunarena. Horren bitartez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen lan-baldintzen negoziazioa has dadila eskatu dio Mahaiari.

– Galdera, María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak egina, ezgaitasun fisikoren bat izanik fisioterapiako tratamendua beharrezkoa duten haur eskolatuei buruzkoa.

– Galdera, María Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak egina, Adimen Osasuneko Sarean laguntza jaso duten 18 urtetik beherakoei buruzkoa.

– Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako Mugarik Gabe-ko ordezkari batzuk eta Guatemalako Comunidades de Población en Resistencia-ko ordezkari bat Elkartzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordearen lan-bileran agertzea eskatu du, "Los sueños perseguidos. Memoria de las Comunidades de Población en Resistencia de la Sierra" liburua aurkezteko.

### 4an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Emakumeei Laguntzeko Zentroek uteroko minbiziaren detekzioaz eginiko txostenei buruz José Andrés Burguete Torres foru parlamentariak eskaturiko informazioa bidali du.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da Familiaren Zuzendaritza Nagusia sor dezan.

– Familia bitartekotzari buruzko Foru Lege Proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Lehendakaritza kontseilariaren eta Funtzio Publi-

koaren Mahaia osatzen duten sindikatuen agerraldia eskatu du, hitzarmenaren berri emateko.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, gas-hornidurarik ez daukaten industrialdeei buruz José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentariak eginiko galderaren erantzuna.

– Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena, Orkoiengo saihebideari buruzkoa.

– Idazkia, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentariarena. Horren bitartez, informazioa eskatu du Norsistemas, S.A. enpresak eskualdeko telebista baten bideragarritasunaz eginiko azterlan tekniko-ekonomikoari buruz.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, UAGN nekazaritza-sindikatuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen lan-bileran ager dadila eskatu du, produktu transgenikoei buruz duen iritzia azal dezan.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Kontuen Ganbara Hezkuntza eta Kultura Batzordearen aurrean ager dadila eskatu du, Unibertsitate Publikoari buruz eta 1998ko ekitaldiari dagokionez eginiko fiskalizazio-txostenaren edukia berri eman dezan.

### 5ean:

– Belén Aquerreta González andrearen eta María Vela Jaurrieta andrearen idazkiak. Horien bitartez, legelariak aldi baterako eta administrazio-izaeraz kontratatzeke zerrenda bat egiteko oposizio-lehiaketan onartuak izan daitezela eskatu dute.

– Idazkia, Juan José Lizarbe Baztán foru parlamentariarena. Horren bitartez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko parlamentariak kargutik kendu edo haiek kargua uzteari buruzko puntuak Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu, Osasun, Europako Gaiak eta Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeen gai-zerrendatik kentzea eskatu du.

